



ZER DA?

BERTSO-IPUIN BAT ZURETZAT egitasmoak zaintza aringarriak behar dituzten haurrentzako bertso-ipuina eskaintzen ditu. Hil Argi Elkartearen bidez, borondatezko bertsolari, musikari eta kideek osatutako taldeak eskaintzen du egitasmoa.

ZERGATIK?

Inork ez du horrelako egoerak ematerik nahi, eta horrelako gaiei buruz hitz egin beharrik ere ez genuke nahi. Baina egoera hauek eman ematen dira, eta zaintza aringarriak behar dituzten haurrak pertsona handi-handi-handiak direla uste dugu, egoera zail horretan bere bidea egiten ari direnak. Beraiek jarri nahi ditugu erdigunean, beraientzat gustukoenak diren pertsonaia, egoera eta bestelako elementuak jasota, beraiei bereziki eskaintako bertso-ipuina bidez. Haur bakoitzarentzat sortuko den istorioa eta kantua izango da bertso-ipuina.

NOLA?

Jarri Hil Argi Elkartearekin harremanetan eta berehala bideratuko dugu eskaera. Elkarteko kide bat arduratuko da familiarekin harremana egiteaz eta familia bakoitzarentzat une eta modurik egokiena zehaztutakoan, haurrak – baita bere anai-arrebek eta familiako kideek ere – bertso-ipuina sortzeko aukeratu nahi dituzten elementuak jasoko ditu eta bertsolariei emango die. Bertsolariek istorioa sortu, musikariek musikatuko dute, eta grabazio bat eta idatziz jasotako bertsoak eskainiko zaizkio haurrari. Bertso-ipuina haurrarena izango da oso-osorik, eta marrazkiekin, bideoarekin edo nahi den forma ematera gonbidatzen ditugu familia eta lagunak.

NON?

Edozein lekutan dagoen haurraren gaitasun iristeko helburua jarrita dugu. Egungo egoerak eskatzen dituen osasun neurriak ere bete eta haurraren eta familiaren beharrak zainduko ditugu.

GEHIAGO JAKIN NAHI?

BERTSO IPUIN BAT ZURETZAT egitasmoa irabazi asmorik ez duen Hil Argi Elkarteak bideratzen du eta egitasmoa eskaintzen duten sortzaile eta kide guztiek oinarri hauek zainduko dituzte:

INTIMITATEA

Protagonista bakarra haurra da eta egitasmoa intimitate horretan ardaztuko da.

- Sortzaileek ez dute nahi inolako aitortzarik, talde bezala parte hartzen dute eta sortutako bertsoak haurarentzako eskaintzen dituzte oso-osorik.
- Hil Argi Elkartearentzat eta egitasmo honetako partaide guztientzat egitasmo honen inguruko informazioa eta bertsoak intimoak dira eta hala tratatuko dituzte.

BIZITZARI KANTUA

Bertso-ipuina, bizitzari egindako kantua da, haurarentzat opari bakana eta pertsonala.

BORONDATEA

Kultur sorkuntzak beste edozein lan bezala ordainduak izan behar direla uste dugun arren, egitasmo honen ezaugarriengatik parte hartzaileen borondatezko eskaintza du oinarri.

EPEEN ZAINZA

Bertso-ipuina egiteko epeak zaintzeko konpromisoa hartu dute egitasmo hau eskaintzen duten sortzaile eta kide guztiek.



BERTSO IPUIN BAT ZURETZAT egitasmoa Hil Argi Elkarteak bideratzen du

Informazio gehiago jaso edo edozein galdera argitzeko, jarri gurekin harremanetan:

hilargi@hilargi.eus

+34 644 357 368